

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5848

AGINDUA, 2009ko irailaren 25ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, behien entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra egindakoan positibo eman duen kanalaren hilketa-kate bereko aurre-aurreko kanala, ondorengo biak eta hortik datozen azpi-produktuak galtzearren emango diren kalte-ordainetarako 2009. urtean erabiliko den zenbateko osoa eta aplikatuko den kalte-ordinak emateko baremoa argitara ematekoa. Aipatutako kalte-ordin horiek martxoaren 2ko 42/2004 Dekretuan aurreikusita daude.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gizakiak kontsumitzeko den animalia hildakoan (betiere Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta baimen egokia duten hildegietan hildako animaliez ari gara), entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra eginda positibo eman duen abereaz gainera suntsitu beharreko kanalak (alegia, hilketa-kate bereko aurre-aurretik joan den kanala eta ondoren datozen hurrengo biak) eta hortik eratorriko produktuak suntsitu eta galtzearren, abere horien jabeei kalte-ordinak emateko modua arautzea, horixe da martxoaren 2ko 42/2004 Dekretuaren xedea (dekreto hori 2004ko maiatzaren 7ko EHAAr argitaratu zen, 85. zenbakian).

Bertako 3. artikuluak xedatzen du urtero, ekitaldiko lehen hiru hilabeteen barruan, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak agindua emango duela, eta, neurri hori betetzeko erabiliko den kopuru osoaz gainera, aplicatu beharreko baremoa ere ezarriko duela, dagokion ekitaldian ematekoak diren kalte-ordinetan bakoitzari dagokion diru-kopurua kalkulatzeko. Kalte-ordinak emateko baremoan, kanala bera ordaintzeaz gain, honako hauek ere sartuko dira: abere-hilketa, kanalak eta bere azpi-produktuak dagokion lekura eramateko eta suntsitzeko gastuak eta konfiskatutako larruaren balioa.

Bestalde, aurtengo laguntzearako deialdia honako arau hauen babesarekin egin da: Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 29ko 19/2009 Legea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

5848

ORDEN de 25 de septiembre de 2009, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se da publicidad al volumen total destinado y al baremo de indemnización aplicable durante el año 2009 a la indemnización por la canal inmediatamente anterior y las dos inmediatamente posteriores a la que dé positivo al test rápido de Encefalopatía Espongiforme Bovina (EEB) en la misma cadena de sacrificio, así como por sus subproductos, prevista en el Decreto 42/2004, de 2 de marzo.

El Decreto 42/2004, de 2 de marzo (BOPV n.º 85, de 7 de mayo de 2004) regula la concesión de una indemnización para compensar la pérdida sufrida por los propietarios de la canal inmediatamente anterior y las dos canales inmediatamente posteriores en la cadena de sacrificio a la que dé positivo en las pruebas de diagnóstico rápido de EEB realizadas en animales sacrificados para el consumo humano con motivo de su destrucción, así como la de sus subproductos, siempre y cuando hayan sido sacrificadas en mataderos autorizados ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Su artículo 3 dispone que anualmente, en el primer trimestre del ejercicio y mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca, se establezca el importe total destinado a esta medida, así como el baremo a aplicar para el cálculo individualizado del importe de las indemnizaciones a conceder durante el correspondiente ejercicio. Este baremo incluirá, además de la canal, los gastos correspondientes al sacrificio, traslado y destrucción de las canales y sus subproductos, así como el valor de la piel decomisada.

Así mismo, el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009, permiten realizar la convocatoria de las ayudas correspondientes a este año.

Hori dela bide, honako hau

EBATZI DUT:

***Lebenengoa.*—** Helburua.

Honakoa da agindu honen helburua: behien entzefalopatia espongiformea (BSE) antzemateko test azkarra egindakoan positibo eman duen kanalaren hilketa-kate bereko aurre-aurreko kanala, ondorengo biak eta hortik datozen azpi-produktuak galtzearren emango diren kalte-ordinetarako 2009. urtean erabiliko den zenbateko osoa eta aplikatuko den kalte-ordinak emateko baremoa argitara ematea. Aipatutako kalte-ordinak horiek martxoaren 2ko 42/2004 Dekretuan aurreikusita daude (EHAA, 2004ko maiatzaren 7koa, 85. zk.).

***Bigarrena.*—** Eskabideak aurkezteko epea.

Lehen aipatutako martxoaren 2ko 42/2004 Dekretuko 5. artikuluak ezarri duenaren arabera, eskabidea hiru hilabeteko epean aurkeztu behar da Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzan, kanala baimendutako transformazio-industria batera eramateko (gero han suntsitu dezaten), edo suntsipen-industria batera eramateko, kanala konfiskatu eta tindatzen den une horretatik hasita.

***Hirugarrena.*—** Laguntzen zenbatekoa, guztira.

Agindu hau betez emango diren laguntzen zenbateko osoa Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko ekitaldiko Aurrekontu Orokoren kontura joango da eta ez da 18.000 eurotik gorakoa izango. Edonola ere, indarrean dauden legeekin bat etorriz aurrekontuetan aldaketak egitea onesten bada, zenbateko hori eguneratu ahal izango da.

Halakorik gertatuz gero, aldaketa horietatik datorren aurrekontuko diru-izendapenaren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratukotako Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

***Laugarrena.*—** Kalte-ordinak emateko baremoa.

2009. urtean konfiskatu eta tindatu diren kanalak direla-eta emango diren kalte-ordinen baremoa honakoa izango da:

En su virtud,

RESUELVO:

***Primero.*—** Objeto.

Es objeto de la presente Orden dar publicidad al volumen total destinado y al baremo de indemnización aplicable durante el año 2009, a la indemnización por la canal inmediatamente anterior y las dos inmediatamente posteriores a la que dé positivo al test rápido de Encefalopatía Espóngiforme Bovina (EEB) en la misma cadena de sacrificio, así como por sus subproductos, prevista en el Decreto 42/2004, de 2 de marzo (BOPV n.º 85, de 7 de mayo de 2004).

***Segundo.*—** Plazo de presentación de solicitudes.

La solicitud de indemnización se presentará ante la Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco en el plazo de tres meses desde la fecha en que se haya practicado el decomiso y tintado de la canal con el objeto de enviarla a una industria de transformación autorizada, para su posterior destrucción, o a una industria de eliminación autorizada, conforme se establece en el artículo 5 del citado Decreto 42/2004, de 2 de marzo.

***Tercero.*—** Volumen total de las indemnizaciones.

El volumen total de las indemnizaciones a conceder en virtud de la presente Orden procederá de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009 y no superará la cantidad de 18.000 euros, sin perjuicio de su actualización en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

En tal caso, la consignación presupuestaria que resulte de la aprobación de dichas modificaciones se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero.

***Cuarto.*—** Baremo de indemnización.

El baremo de indemnización aplicable a las canales decomisadas y tintadas durante el año 2009 es el siguiente:

Kategoria	Kalte-Ordaina euro/kg egurastuta
A atala (24 hiletik beherako arrak, zikiratu gabeak)	3,95
E atala (emeak, umerik egin gabeak)	4,26
C eta B atala (idiak eta zezenak))	2,51
DU eta DR atala (emeak, umea egindakoak)	3,23

Kategoria	Kalte-Ordaina euro/kg egurastuta
DO atala (emeak, umea egindakoak)	2,82
DP atala (emeak, umea egindakoak)	1,49
C atala (24 hiletik beherako arrak, zikiratuak)	4,05

Categoría	Indemnización euros/kg tras oreo
Categoría A (machos menores de 24 meses no castrados)	3,95
Categoría E (hembras no paridas)	4,26
Categoría C y B (bueyes y toros)	2,51
Categoría DU y DR (hembras paridas)	3,23
Categoría DO (hembras paridas)	2,82
Categoría DP (hembras paridas)	1,49
Categoría C (machos menores de 24 meses castrados)	4,05

Bosgarrena.— Errekurtsoak.

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari hilabeteko epean. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administraziorekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epeareen barruan. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epea.

Seigarren.— Indarraldia.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 25a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

Quinto.— Recursos.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación.

Sexto.— Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de septiembre de 2009.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.